

KONTROL MOZIOA

LANKIDETZAREN GARAPENARI BURUZKO EUSKAL LEGEAREN BETETZE MAILA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko urriaren 14ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Eusko Legebiltzarrean onartutako Lankidetzaren Garapenari buruzko 1/2007 Lege horrek, bigarren xedapen gehigarrian, honela dio: *Nahiz eta aurrera egin behar den, gainerako herri-administrazioekin batera, produktu gordinaren %0,7 betetzeko bidean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arian-arian gehituko ditu garapen lankidetzarako eta nazioarteko elkartasunerako ekarpenak, 2012ko aurrekontu orokorretan ezarritako gastu osoaren %0,7 izan daitezten.*

Datuen arabera, hasieratik, EAEko erakunde publikoak erreferentzia izan ziren Estatuan garapenerako lankidetzari egindako aurrekontu-ekarpenei dagokienez. Azkeneko urteetan, ordea, bilakaera hori aldatu egin da eta EAEko erakundeek funtsen % 17 murriztu dituzte 2009. urtetik aurrera. Gasteizko Udala izan da salbuespena eta bere aurrekontuaren % 0,7 lankidetzara bideratzen hasi da, 1/2007 legeak dioena betez.

Beraz, Legeak epe luzerako helburu bat ezartzen du (EAEko erakundeen artean Barne Produktu Gordinaren %0,7 lortzea), eta epe ertaineko helburu bat, aurrekoari arian arian hurbiltzen joateko; hau da, 2012an aurrekontu orokorretako gastu osoaren % 0,7 izateko.

Urriaren 3an burututako Lankidetzaren Kontseiluan, Euskadiko GGKEn koordinakundeko ordezkariak legeak dioena betetzeko eskaera luzatu diote Udal Gobernuari.

Urriko batzordean, delegatua interpelatu dugunean, lankidetzako aurrekontua igotzeko intentzioa duela aipatu du, baina portzentaiaren igoera ziurtatu gabe eta, hain zuzen ere, legeak aurrekontu orokorretako gastu osoaren % 0,7ari egiten dio erreferentzia.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2019-2023 agintaldirako egutegi bat zehaztu dezala, Eusko Legebiltzarrean onartutako Lankidetzaren Garapenari buruzko 1/2007 Legeak jasotzen duena betetzeko (hau da, aurrekontu orokorretan ezarritako gastu osoaren %0,7a lankidetzara bideratzea).

2.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egutegi hori Lankidetzaren Kontseiluan aurkeztu dezala, bertan ordezkaturik dauden eragile zein alderdiekin partekatuzeko.

Donostian, 2019ko urriaren 18an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia